GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN PLANETAN, ARAUETAN ETA AURREKONTU-ZIKLOAREN FASE GUZTIETAN GENERO-IKUSPEGIAREN INTEGRAZIOA HOBETZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA (2026002CO600)

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA MEJORA DE LA INTEGRACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN PLANES, NORMAS Y EN TODAS LAS FASES DEL CICLO PRESUPUESTARIO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA (2026002CO600)

I. SARRERA

Botere publikoen jarduna funtsezkoa da emakume eta gizonen arteko desberdinkeria sozialak desagerrarazi eta gizarte bidezkoagoa eta demokratikoagoa lortzeko bidean. Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentziak (Beijing, 1995) sustatu zuen genero-ikuspegia modu ikusgarri eta aktiboan politika eta programa guztietan txertatzeko estrategia, erabakiak hartu aurretik emakume eta gizonengan dituzten eraginak azter ditzaten ezarrita.

Esparru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak genero-mainstreaminga edo -zeharkakotasuna erakundean ezartzeko lan egin du azken urteotan, emakumeen eta gizonen berdintasuna politika publikoetan presente egon dadin esku hartzeko eremu guztietan, eta horien maila eta fase guztietan, berdintasunezko gizarte baterantz aurrera egiteko ondorio positiboa bilatuz.

Ondoren, emakume eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoak, 1/2023 Legegintza Dekretuak onartutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru arauak xedatzen dituzte genero-ikuspegia jardun administratiboan eta, zehazki, araugintzan, aurrekontuetan eta programetan txertatzeko berariazko arau-aginduak. Esan genezake esparru bakoitzak agindu horien zehaztapen-maila bat ezartzen duela. Zentzu

I. INTRODUCCIÓN

La actividad de los poderes públicos es fundamental en el camino hacia la eliminación las desigualdades sociales entre mujeres y hombres para lograr una sociedad más justa y democrática. La IV Conferencia Mundial sobre las Mujeres (Beijing, 1995) impulsó la estrategia de incorporar de forma visible y activa la perspectiva de género en todas las políticas y programas, exigiendo analizar sus efectos en mujeres y hombres antes de tomar decisiones.

En este marco, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido trabajando en los últimos años la implantación del *mainstreaming* o transversalidad de género en la institución, con el objetivo de que la igualdad de mujeres y hombres esté presente en las políticas públicas en todos los ámbitos de intervención, en todos sus niveles y en todas sus fases, buscando un efecto positivo en el avance hacia una sociedad igualitaria.

Posteriormente, tanto la *Ley Orgánica 3/2007, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres*, como el *texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres aprobada por Decreto Legislativo 1/2023,* y por último, la *Norma Foral 2/2015, para la igualdad de mujeres y hombres* establecen mandatos normativos específicos de cara a la integración de la perspectiva de género en la actividad administrativa y concretamente, en su actividad normativa, presupuestaria y programática. Podríamos decir que cada uno de los

horretan, orokorrena Lege Organikoarena da, eta zehatzena, Foru Arauarena. Hala ere, guztiak esparru komun batean kokatzen dira: txertatzea politika publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua.

marcos establece un nivel de concreción de estos mandatos, siendo el más general el de la Ley Orgánica y el más concreto el de la Norma Foral, pero que todos ellos se sitúan en un marco común: el de integrar el objetivo de la igualdad de mujeres y hombres en las políticas públicas.

Hala, eremu horretako aginduak honela laburbil daitezke:

Así, los mandatos en este ámbito pueden resumirse en:

- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoak* honela dio 15. artikuluan: «Emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko da botere publiko guztien jardunean, zeharkakotasun izaerarekin. Administrazio publikoek printzipio hori modu aktiboan barneratuko dute, euren arau xedapenak ematean nahiz betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera guztiak garatzean».

- La *Ley Orgánica 3/2007, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres*, en su art. 15: "El principio de igualdad de trato y oportunidades entre mujeres y hombres informará, con carácter transversal, la actuación de todos los Poderes Públicos. Las Administraciones públicas lo integrarán, de forma activa, en la adopción y ejecución de sus disposiciones normativas, en la definición y presupuestación de políticas públicas en todos los ámbitos y en el desarrollo del conjunto de todas sus actividades".

- *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak* –1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoa– gai horri eskaintzen dio IV. kapitulua, eta, zehazki, genero-ikuspegia administrazio-jardueran txertatzeko betebeharra ezartzen du 19. eta 20. artikuluetan. 19. artikuluak ezartzen duenez, «EAEko botere publikoek aktiboki izan behar dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua arauak garatu eta aplikatzerakoan, eta planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk (…) aplikatzerakoan», eta agindu hori zehazteko, generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzeko txostenak egiteko betebeharra ezartzen du 20. artikuluan: «Arau bat egiteko unean, EAEko administrazio publikoek, hori sustatzen duen administrazio-organoaren bitartez, ebaluatu egin behar dute

- El *texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres aprobada por Decreto Legislativo 1/2023*, dedica el Capítulo IV a esta cuestión y concretamente, establece la obligación de integrar la perspectiva de género en la actividad administrativa a través de los artículos 19 y 20. El artículo 19 establece así que "Los poderes públicos vascos han de tener en cuenta de manera activa el objetivo de la igualdad de mujeres y hombres en la elaboración y aplicación de las normas y de los planes, programas y otros instrumentos de formulación de políticas públicas (…)" y concreta este mandato en el ámbito normativo a través de la obligatoriedad de elaborar informes de evaluación previa de impacto de género, en el artículo 20: "En el momento de acometer una norma, las administraciones públicas vascas, a través del órgano administrativo que lo

proposamen horrek nolako inpaktua izan dezakeen emakumeen eta gizonen egoeran». Plan sektorialei dagokienez, 25. artikuluan hau xedatzen du: «EAEko botere publikoek genero-ikuspegia sartu behar dute beren plan sektorialetan eta estrategikoetan (…)». Aurrekontuei dagokienez, 15.1 artikuluak hau ezartzen du: «EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren aurrekontu publikoetan, bereziki haiek taxutzeko fasean, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdinkeriak desagerrarazten laguntzeko. Horretarako, gidalerroak ezarri behar dituzte, eginkizun hori gauzatzeko, horri jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, eta trebakuntza-prozesu egokiak abiarazteko».

promueva, han de evaluar el impacto potencial de la propuesta en la situación de las mujeres y en la de los hombres". En cuanto a los planes sectoriales, en el artículo 25 se establece que "Los poderes públicos vascos han de incluir la perspectiva de género en sus planes sectoriales y en los de carácter estratégico (…)". En lo que se refiere a presupuestos, es el art. 15.1 el que establece: "Las administraciones públicas vascas han de integrar la perspectiva de género en sus presupuestos públicos, en particular en su fase de diseño, con el fin de que sean sensibles a las diferentes necesidades de mujeres y hombres y de que contribuyan a promover la igualdad y a eliminar las desigualdades en función de sexo. A tal fin, deben establecer las correspondientes directrices para su realización, seguimiento y evaluación, así como los oportunos procesos de capacitación."

- Gipuzkoan, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Araua* are zehatzagoa da. VII. kapitulua araugintzari buruzkoa da, eta hau xedatzen du 27. artikuluan: «Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak (…) generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita», eta gainera xedatzen ditu agindu hori betetzeko burutu beharreko izapideak. Aurrekontuei dagokienez, VIII. kapituluak, 28. artikuluan, hiru agindu ezartzen ditu:

- En el ámbito de Gipuzkoa, la *Norma Foral 2/2015, para la igualdad de mujeres y hombres*, es aún más concreta. Dedica el capítulo VII a la producción normativa, estableciendo en su artículo 27 que "los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa (…) se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género", estableciendo, además, los trámites a seguir para cumplir este mandato. En cuanto a presupuestos, el Capítulo VIII, art. 28 contiene tres mandatos:

1. Ogasun eta finantzen esparruko funtzioak eta eskumenak esleitzen zaizkion GFAko departamentuak behar bezala egiaztatu, aztertu eta ebaluatu beharko du aurrekontu programen inpaktu potentziala, generoaren ikuspegitik begiratuta, horiek urtero onartu baino lehen. Aurrerago, aurrekontu ekitaldia amaitzen denean, programa horiek benetan egikaritzean

1. El departamento de la DFG al que se le atribuyan las funciones y competencias en materia de hacienda y finanzas revisará, analizará y evaluará, con carácter previo a su aprobación anual, el impacto potencial desde la perspectiva de género de los programas presupuestarios y posteriormente, una vez finalizado el ejercicio presupuestario, el impacto

emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean sortutako inpaktua ere aztertu beharko du.

2. (…) GFAk genero ikuspegia erabiliz osatuko ditu bere aurrekontuak, eta diru sarrera zein gastu politikak aztertuko ditu horretarako.

3. Gipuzkoan pertsonen bizitzaren zainketa eta emakumeen zein gizonen arteko berdintasuna izango dira printzipio gidariak, eta lehentasunezko izaera izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontuak banatzeko orduan

real de la ejecución de los mismos en la igualdad de mujeres y hombres.

2. (…) la DFG elaborará los presupuestos con perspectiva de género analizando sus políticas de ingresos y gastos.

3. El cuidado de la vida de las personas y la igualdad de mujeres y hombres serán principios rectores y tendrán carácter prioritario en la distribución del presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2011. urtean, GFAk prozedura homogeneo bat ezarri zuen genero eraginaren aurretiazko ebaluazioaren txostenak egiteko *Gipuzkoako Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenen Genero Inpaktua Ebaluatzeko Txostenak egiteko jarraibideen* bidez (2011ko ekainaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez onartu ziren). Jarraibide horiek foru administrazioarentzako jarraibide dira txostenak egiteko prozesuaren eta txostenen edukiaren inguruan. 2018an, diagnostiko bat egin zen egindako lana baloratzeko, eta hobetu beharreko arlo batzuk identifikatu ziren. Ondoren, 2019tik aurrera, esperientzia pilotu bat jarri zen abian lau departamenturekin, eta, 2020an, berariaz hasi ziren Ogasun eta Finantza Departamentuarekin, aurreko fasean identifikatutako hobekuntzak ezartzeko. Hori guztia finkatuz joan zen 2021etik aurrera, batetik, zenbait departamenturekin lan espezifikoko lerro bat abian jarrita genero-ikuspegia txertatzeko aurrekontu programetan, eta bestetik, Ogasun eta Finantza Departamentuarekin lan ildo bat sustatuta genero-ikuspegia aurrekontuetan eta zerga-araudian txertatzeko moduan sakontzeko. Horren guztiaren ondorioz, 2024an beste berrikuspen bat egin zen eta orduan jorratu eta ezarri ziren tresna berri batzuk.

Ya en el año 2011, la DFG articuló un procedimiento homogéneo para la elaboración de informes de evaluación previa de impacto de género mediante las *Directrices para la elaboración de Informes de Evaluación Previa del Impacto de Género de las disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa,* aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral el 21 de junio de 2011. Estas directrices orientan a toda la Administración foral sobre el proceso y contenido de los informes. En el año 2018, se realizó un diagnóstico para valorar el trabajo realizado y se identificaron algunas áreas de mejora. Posteriormente, a partir del año 2019, se puso en marcha una experiencia piloto con cuatro departamentos y en 2020 se inició un trabajo específico con el Departamento de Hacienda y Finanzas, de cara a implementar las mejoras identificadas en la fase anterior. Todo ello, se fue consolidando a partir de 2021, por una parte, mediante la puesta en marcha de una línea de trabajo específica con diferentes departamentos, de cara a integrar la perspectiva de género en los programas presupuestarios y por otra parte, mediante el impulso de una línea de trabajo con el Departamento de Hacienda y Finanzas, a fin de profundizar en el abordaje de la integración de la perspectiva de género en la presupuestación y en la normativa fiscal. Fruto de todo ello, en el año 2024, fue la realización de una segunda revisión, tras la que se abordaron e implementaron algunas nuevas herramientas.

Ogasun Departamentuarekin berariaz ezarritako lankidetza-prozesuek emaitzak eman dituzte eta aurrekontu orokorren genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioaren txostenaren eredu berria ezarri da, «Memoria» deiturikoa, eta kontu orokorraren emaitzak analizatzen ari dira, alegia, aurrekontuak genero-ikuspegitik expost aztertzen dituzte. Bestalde, genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluaziorako estrategiak prozedura-tresna berriak sortzen ditu araudian eta atea zabaltzen die ildo honetan jarraitzeko beharra erakusten duten lankidetzako prozesuei.

Los procesos colaborativos establecidos específicamente con el Departamento de Hacienda han dado sus frutos, estableciéndose un nuevo modelo de informe de evaluación previa de impacto de género de los Presupuestos Generales, llamado "Memoria" y dando comienzo al análisis de los resultados de la Cuenta General, es decir, al análisis expost desde el punto de vista de género de los Presupuestos. Por su parte, la estrategia para la evaluación previa de impacto de género en la normativa crea nuevas herramientas procedimentales y abre la puerta a diversos procesos colaborativos que muestran la necesidad de seguir incidiendo por esta línea.

Egia izan arren emaitzak nabarmenak direla eta pauso garrantzitsuak eman direla prozedurak eta lan-edukiak hobetzeko, oraindik ere gehiago sakondu behar da eta praktika horiek gauzatu behar dira jardun administratiboan eta esperientzia espezifikoak lan-prozesu egonkor eta estruktural bihurtu. Orain arte, egindako lanaren oinarria izan da berariazko esku-hartzeak egitea esparru jakinetan, baina genero-ikuspegia administrazioaren ohiko prozedura garrantzitsuenetan finkatzen, sakontzen eta zabaltzen jarraitu behar da (araugintza, programak eta aurrekontuak).

Si bien es cierto que los resultados son notables y que se han dado importantes pasos en la mejora de los procedimientos y contenidos de trabajo, no es menos cierto que aún es necesario profundizar y cristalizar estas prácticas en la actividad administrativa y convertir las experiencias específicas en procesos de trabajo estables y estructurales. Hasta el momento, el trabajo realizado se ha basado en intervenciones específicas en ámbitos concretos, pero se ve necesario seguir consolidando, profundizando y ampliando la integración de la perspectiva de género en algunos de los procedimientos comunes más significativos de la administración (elaboración normativa, programática y presupuestaria).

Era berean, hauteman da azken urteetan egindako lanaren inpaktua ebaluatu behar dela, batez ere lan-tresna eta -metodo berriak abian jarri zirenetik aurrerakoa. Metatutako esperientzia kontuan izanda, ikaskuntzak eta berriki egindako aurrerapen metodologikoa finkatu behar dira, eredu irmoagoetarako eta denboran konparatzeko aukera ematen dutenetarako aurrerapena erraztuta.

También se detecta la necesidad de evaluar el impacto del trabajo realizado en los últimos años, principalmente desde la puesta en marcha de nuevas herramientas y métodos de trabajo. Teniendo en consideración la experiencia acumulada, se ve la necesidad de consolidar los aprendizajes y el avance metodológico reciente, facilitando la progresión hacia modelos más sólidos y comparables en el tiempo.

Halaber, identifikatu da aurrekontu ekitaldiaren ex ante eta ex post ebaluazioari lotutako esperientzia sozializatu behar dela, prozesu berritzaile eta aitzindaria delako, eta emaitzak baliagarriak izan

De forma complementaria, se identifica también la necesidad de socializar principalmente la experiencia ligada a la evaluación ex ante y ex post del ejercicio presupuestario, tanto en cuanto se

daitezkeelako politika publikoetan jarduten direnen ikaskuntzetarako eta genero-ikuspegia esparru publikoko kudeaketa ekonomikoaren esparruan integratzearen inguruko prozesu zabal, estruktural eta iraunkorretatik abiatuta lor daitezkeen emaitzen inguruko hausnarketarako.

trata de un proceso novedoso y pionero, que arroja resultados que pueden servir de aporte para el aprendizaje de aquellas personas que desarrollan su labor en el ámbito de las políticas públicas, así como para la reflexión en torno a los resultados que se pueden obtener a partir de procesos amplios, estructurales y sostenidos en el tiempo relacionados con la integración de la perspectiva de género, en este caso, en el ámbito de la gestión económica en el ámbito público.

Hori guztia kontuan hartu behar da, genero-ikuspegia jardun administratiboan integratzea honela ulertzen den esparru batean:

Todo ello debe ser tenido en cuenta, además, en un marco en el que la integración de la perspectiva de género en la actividad administrativa se entiende de la siguiente manera:

- Nahitako egintza da, borondate politikoa eta gaitasun teknikoa behar dira.
- Pixkanakako prozesu iraunkorra da, eta epe zabalak behar dira emaitza eta inpaktu positiboak lortzeko.
- Prozesua oso konplexua da tarteko diren prozedura eta langileei dagokienez.

- Un acto intencional, que requiere de voluntad política y capacitación técnica.
- Un proceso paulatino y sostenido en el tiempo, que requiere de periodos amplios para lograr resultados e impactos positivos.
- Un proceso altamente complejo en cuanto a la diversidad de procedimientos y de personal cuya participación incluye y articula.

Horregatik guztiagatik, laguntza espezializatua behar du Gipuzkoako Foru Aldundiak genero-ikuspegia araugintzan, programetan eta aurrekontuetan txertatzeko elementuak ezarri eta koordinatzeko.

Por todo lo señalado, se hace necesario contar con una asistencia especializada que acompañe a la Diputación Foral de Gipuzkoa en el despliegue y coordinación de los distintos elementos que articulan la integración de la perspectiva de género en la producción normativa, programática y presupuestaria a nivel foral.

Horretarako, erabaki da laguntza teknikoa kontratatzea Berdintasunerako Organoari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Aurrekontu Zuzendaritzari prozesu hori abian jartzen laguntzeko.

Para ello, se ha decidido contratar una asistencia técnica que ayude al Órgano para la Igualdad y a la Dirección de Presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa a poner en marcha este proceso.

2. KONTRATUAREN XEDEA

2. OBJETO DEL CONTRATO

Kontratuaren xedea da aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak kontratatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren planetan, arauetan eta aurrekontu-zikloaren fase guztietan genero-ikuspegia hobeto integratzeko eta lortutako emaitzak sozializatzeko.

El objeto del contrato es la contratación de servicios de asesoría y asistencia técnica para la mejora de la integración de la perspectiva de género en planes, normas y en todas las fases del ciclo presupuestario de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la socialización de los resultados obtenidos.

3. EGIN BEHARREKO LANAK

1. Lan-prozesu bat diseinatzea eta garatzea genero-ikuspegia GFAren arauetan eta plan estrategikoetan txertatzeko prozedura hobetzeko, Berdintasunerako Organoa sendotzeko araugintzari lotutako arau mandatuei erantzuterakoan eta emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko prozeduraren inpaktua hobetzeko.

a. Berdintasunerako Organoari laguntzea analisi- eta gogoeta-prozesu sistematiko batean, genero-ikuspegia araudian eta foru-plan estrategikoetan txertatzeko prozedura indartu eta optimizatu ahal izateko, sinplifikatzeko, hobetzeko eta etengabe hobetzeko aukerak identifikatuz.

b. Berdintasunerako Organoari laguntza ematea genero-inpaktua aurretiaz ebaluatzeko prozedura errazteko eta arintzeko garatutako tresnak abian jartzeko eta eraginkortasunez erabiltzeko, bai eta txostenak berrikusteko eta egiaztatzeko ere, eta, beharrezkoa denean, gomendioetara egokitzen diren ebaluatu eta hobekuntzak proposatuta.

c. Zuzendaritza- eta kudeaketa-zentroei laguntzea arauak eta plan estrategikoak egiteko prozesuan, bermatuz genero-ikuspegia zeharka txertatzen dela, aholkularitza emanez berdintasuneko arau-esparruak, emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak

3. TRABAJOS A REALIZAR.

1. Diseñar y desarrollar un proceso de trabajo para mejorar el procedimiento de integración de la perspectiva de género en la normativa y planes estratégicos de la DFG, reforzando al Órgano para la Igualdad en su respuesta a los mandatos normativos vinculados a la producción normativa y para mejorar el impacto del procedimiento sobre la igualdad de mujeres y hombres

a. Acompañar al Órgano para la Igualdad en un proceso sistemático de análisis y reflexión que permita reforzar y optimizar el procedimiento de incorporación de la perspectiva de género en la normativa y los planes estratégicos forales, identificando oportunidades de simplificación, mejora y perfeccionamiento continuo.

b. Prestar apoyo al Órgano para la Igualdad en la puesta en marcha y uso efectivo de las herramientas desarrolladas para facilitar y agilizar el procedimiento de evaluación previa del impacto de género, así como en la revisión y verificación de los informes correspondientes, evaluando su adecuación a las recomendaciones y proponiendo mejoras cuando sea necesario.

c. Acompañar a los centros directivos y gestores en el proceso de elaboración de normas y planes estratégicos forales, garantizando la incorporación transversal de la perspectiva de género mediante el asesoramiento en la identificación de los marcos normativos de

eta berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko neurri egokienak identifikatzeko.

igualdad, las desigualdades existentes entre mujeres y hombres y las medidas más adecuadas para promover una igualdad real y efectiva.

d. Genero-ikuspegia GFAren araudian eta plan estrategikoetan txertatzeko prozeduraren ebaluazioa egitea, azken 5 urteetan ezarritako prozesuen inpaktua baloratzeko.

d. Realizar una evaluación del procedimiento de incorporación de la perspectiva de género en la normativa y los planes estratégicos de la DFG, con el fin de valorar el impacto de los procesos implementados en los últimos 5 años.

e. Generoaren arloan garrantzi handiena duten arau eta plan estrategikoen expost ebaluazio-eredu bat diseinatzea, aukera emango duena neurriek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean duten benetako eragina ezagutzeko, planteatutako helburuen betetze-maila baloratzeko, garatutako jardueren eraginkortasuna aztertzeko eta etorkizuneko hobekuntzak identifikatzeko, eta, horrela, etengabeko hobekuntzan eta berdintasunaren arloko politika publikoen kontu-ematean laguntzeko.

e. Diseñar un modelo de evaluación expost de las normas y planes estratégicos con mayor relevancia de género, que permita conocer el impacto real de las medidas sobre la igualdad entre mujeres y hombres, valorar el grado de cumplimiento de los objetivos planteados, analizar la eficacia de las actuaciones desarrolladas e identificar mejoras futuras, contribuyendo así a la mejora continua y a la rendición de cuentas de las políticas públicas en materia de igualdad.

2. Aurrekontuen Genero Inpaktuaren Aurretiazko Ebaluazioaren Memoria egiten, ebaluatzen eta hobetzen lagunduko duen lan-prozesu bat diseinatzea eta garatzea, aurrerapen- eta sistematizazio-mekanismoak abian jartzea azpimarratuz.

2. Diseñar y desarrollar un proceso de trabajo que acompañe la realización, evaluación y mejora de la Memoria de Evaluación Previa de Impacto de Género de los Presupuestos, incidiendo en la puesta en marcha de mecanismos de avance y sistematización.

a. Lankidetzan aritzea, aholkatzea eta laguntzea aurrekontu orokorren genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazio-memoria egiteko, sistematizatzeko eta hobetzeko garatu beharreko lan-prozesua diseinatzen –helburuak, faseak, tresnak, arduradunak eta produktuak barne–, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Gobernantza departamentuak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa inplikatuta daudenean.

a. Colaborar, asesorar y acompañar en el diseño del proceso de trabajo a desarrollar para la elaboración, sistematización y mejora de la Memoria de evaluación previa de impacto de género de los presupuestos generales, incluyendo objetivos, fases, herramientas, responsables y productos, en el que estén implicados los Departamentos de Hacienda y Gobernanza y el Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b. Inplikatutako departamentuetako arduradunei laguntzea eta aholku ematea, prozesuaren hasieratik txostenak entregatu arte, hobetu beharreko elementuak azpimarratuz eta inplikatutako departamentuen artean prozesuaren gauzatzea koordinatzeko eta ebaluatzeko uneak ezarriz.

b. Acompañar y asesorar a las personas responsables de los Departamentos implicados desde el inicio del proceso hasta la entrega de los correspondientes informes, incidiendo en los elementos a mejorar y estableciendo momentos de coordinación y evaluación de la ejecución del proceso entre los Departamentos implicados.

c. Proposamenak egitea aurreko memorietan hobetu beharreko elementu gisa identifikatutako gaiei heltzeko, batez ere diru-sarreren, gastu ez-monetarioen eta langile-gastuen atalean.

c. Realizar propuestas para abordar cuestiones identificadas como elementos a mejorar en anteriores memorias, principalmente en el apartado de Ingresos, Gastos no monetarios y Gastos de personal.

d. Elkarrekin hausnartzeko guneak eta uneak bultzatzea, koordinatzea eta dinamizatzea, prozesua eta produktua egituraren ikuspegitik aztertu ahal izateko, sakontze-arloak eta hobetzeko guneak identifikatuz, bai prozesuaren garapenari dagokionez, bai txostenen edukiari eta hura egiteko erabili beharreko tresnei dagokienez.

d. Impulsar, coordinar y dinamizar espacios y momentos de reflexión conjunta, que permitan analizar tanto el proceso como el producto desde una perspectiva estructural, identificando áreas de profundización y espacios de mejora, tanto en lo que respecta al desarrollo del proceso, como en cuanto al contenido de los informes y de las herramientas a utilizar para su elaboración.

e. Eremu bakoitzeko arduradunek berdintasunaren arloan duten gaikuntza sustatzea, genero-ikuspegitik egindako azterketen, desberdintasunen identifikazioaren eta aurrekontuaren bidez horiei aurre egiteko aldaketen edo hobekuntzen proposamenen inguruan.

e. Promover la capacitación en igualdad de las personas responsables de cada uno de los ámbitos en la realización del análisis desde el punto de vista de género, la identificación de desigualdades y la propuesta de cambios o mejoras a través del presupuesto para combatirlas.

f. Inplikatutako zuzendaritza eta departamentuetako teknikariak eta politikariak prozesuan inplikatzea: Berdintasunerako Organoa, Ogasun eta Finantza Departamentua eta Gobernantza Departamentua.

f. Involucrar en el proceso a personal técnico y político de las direcciones y Departamentos implicados: Órgano para la Igualdad, Departamento de Hacienda y Finanzas y Departamento de Gobernanza.

3. Kontu Orokorraren genero-eraginaren expost ebaluazio-txostena hobetzeko eta sistematizatzeko lan-prozesu bat diseinatzea eta garatzea.

3. Diseñar y desarrollar un proceso de trabajo para la mejora y sistematización del Informe de evaluación expost del impacto de género de la Cuenta General.

a. Kontu Orokorrean genero-inpaktua ebaluatzeko txostena hobetzen eta sistematizatzen laguntzeko lan-prozesu bat diseinatzea, helburuak, faseak, tresnak, arduradunak eta produktuak barne hartuta eta Ogasun Departamentua eta Berdintasunerako Organoa inplikatuta.

a. Diseñar un proceso de trabajo para acompañar en la mejora y sistematización del Informe de evaluación del impacto de género en la Cuenta General incluyendo objetivos, fases, herramientas, responsables y productos, en el que estén implicados el Departamento de Hacienda y el Órgano para la Igualdad.

b. Inplikatutako departamentuetako arduradunei laguntzea eta aholku ematea, prozesuaren hasieratik txostenak entregatu arte, hobetu beharreko elementuak azpimarratuz eta inplikatutako departamentuen artean prozesuaren gauzatzea koordinatzeko eta ebaluatzeko uneak ezarriz.

b. Acompañar y asesorar a las personas responsables de los Departamentos implicados desde el inicio del proceso hasta la entrega del informe, incidiendo en los elementos a mejorar y estableciendo momentos de coordinación y evaluación de la ejecución del proceso entre los Departamentos implicados.

c. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuei lotutako prozesuen artean elkarrizketa ezartzea, prozesu horien ikuspegi orokor eta artikulatua sortzen lagunduz eta hobetzeko arloak eta balizko konponbideak identifikatzeko aukerak biderkatuz, lortutako informazioa eta emaitzak bateratuta.

c. Establecer un diálogo entre los diferentes procesos ligados a la presupuestación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, contribuyendo a la generación de una visión global y articulada de los mismos y multiplicando las posibilidades de identificar áreas de mejora y posibles soluciones mediante la puesta en común de la información y los resultados obtenidos.

d. Elkarrekin hausnartzeko guneak eta uneak bultzatzea, koordinatzea eta dinamizatzea, prozesua eta produktua egituraren ikuspegitik aztertu ahal izateko, sakontze-arloak eta hobetzeko guneak identifikatuz, bai prozesuaren garapenari dagokionez, bai txostenaren edukiari eta hura egiteko erabili beharreko tresnei dagokienez.

d. Impulsar, coordinar y dinamizar espacios y momentos de reflexión conjunta, que permitan analizar tanto el proceso como el producto desde una perspectiva estructural, identificando áreas de profundización y espacios de mejora, tanto en lo que respecta al desarrollo del proceso, como en cuanto al contenido del informe y de las herramientas a utilizar para su elaboración.

e. Eremu bakoitzeko arduradunek berdintasunaren arloan duten gaikuntza sustatzea, genero-ikuspegitik egindako azterketen, desberdintasunen identifikazioaren eta aurrekontuaren bidez

e. Promover la capacitación en igualdad de las personas responsables de cada uno de los ámbitos en la realización del análisis desde el punto de vista de género, la identificación de desigualdades y la propuesta de cambios o

horiei aurre egiteko aldaketen edo hobekuntzen proposamenen inguruan.

4. Berdintasunerako Organoari eta Ogasun eta Finantza Departamentuari laguntza eta aholkua ematea jardunaldi bat diseinatzeko aurrekontu-zikloa genero-ikuspegitik aztertzearen eremuan sortutako ikaskuntzak sozializatzeko.

   a. Jardunaldiaren edukia diseinatzea. Honako gai hauek jorratu beharko ditu: genero-ikuspegiko aurrekontuen esparru teorikoa eta juridikoa, ezagutza aditua eta/edo antzeko beste esperientzia batzuk, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esperientziak sortutako ikaskuntzak eta interesgarria izan daitekeen beste edozein.

   b. Jardunaldian parte hartzeko interesgarriak izan daitezkeen adituak identifikatzea.

   c. Berdintasunerako Organoari eta Ogasun Departamentuari laguntzea eta aholku ematea jardunaldiari lotutako gai operatiboak antolatzen, emaitza ezin hobea eta eraginkorra lortzeko.

5. Beste eginkizun orokor batzuk:

   a. Lan-prozesu osoa diseinatu, dinamizatu, sistematizatu eta ebaluatzea

   b. Aurrekontu-zikloarekin eta berdintasunerako plangintza-tresnekin bateragarria den kronograma orokorra diseinatzea.

   c. Prozesuan zehar egiten diren bilerei dagokienez, gai-zerrendak eta beharrezko

mejoras a través del presupuesto para combatirlas.

4. Diseñar, asesorar y acompañar al Órgano para la Igualdad y el Departamento de Hacienda y Finanzas en la implementación de una jornada que tenga como objetivo socializar los aprendizajes generados en el ámbito del análisis del ciclo presupuestario desde la perspectiva de género.

   a. Diseñar el contenido de la jornada, que deberá abordar los siguientes bloques temáticos, marco teórico y jurídico de la presupuestación con perspectiva de género, conocimiento experto y/o de otras experiencias similares, aprendizajes generados por la experiencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como cualquier otro que resulte de interés.

   b. Identificar aquellas personas, a nivel experto, que resulten de interés como participantes en la jornada.

   c. Acompañar y asesorar al Órgano para la Igualdad y al Departamento de Hacienda en la organización de las cuestiones operativas ligadas a la propia jornada, que permitan obtener un resultado óptimo y eficaz.

5. Otras funciones de carácter general:

   a. Diseñar, dinamizar, sistematizar y evaluar todo el proceso de trabajo

   b. Diseñar un cronograma global compatible con el ciclo presupuestario y las herramientas de planificación en igualdad.

   c. Con respecto a las reuniones de coordinación que se celebren a lo largo del proceso, preparar

dokumentazioa prestatzea, deialdiak egitea, dinamizatzea eta koordinatzea, eta aktak jasotzea.

los órdenes del día y la documentación necesaria, realizar las convocatorias, dinamizarlas y coordinarlas y recoger las actas correspondientes.

d. Proiektu osoan, Berdintasunerako Organoarekin koordinatzea, kontratatutako lanen jarraipena egiteko, hobekuntza-eremuak identifikatuz eta aurreikusitako emaitzak organoarekin berarekin adostutako baldintzetan lortzen direla bermatuz.

d. Durante todo el proyecto, coordinarse con el Órgano para la Igualdad con el objetivo de hacer seguimiento a los trabajos contratados, identificando ámbitos de mejora y garantizando la obtención de los resultados previstos en los términos acordados con el propio Órgano.

e. Prozesu osoan zehar, harreman egokia eta beharrezkoa izatea Ogasun eta Finantza Departamentuarekin eta Gobernantza Departamentuarekin, bereziki lan-prozesuen garapenean inplikatutako zuzendaritzekin, hau da, Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzarekin, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiarekin, garapen operatiboa adosteko eta lanaren jarraipen bateratua eta etengabea egiteko. Gainera, prozesua garatzen den bitartean beste departamentu edo zuzendaritza batzuen parte-hartzea aurreikustea eta bultzatzea.

e. Mantener durante todo el proceso la interlocución adecuada y necesaria con los Departamentos de Hacienda y Finanzas y Gobernanza, especialmente con las Direcciones implicadas en el desarrollo de los procesos de trabajo, esto es, la Dirección de Política Fiscal y Financiera, la Dirección General de Finanzas y Presupuestos y la Dirección General de Función Pública de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con el objetivo de acordar el desarrollo operativo y realizar un seguimiento conjunto y constante del trabajo. Además, prever e impulsar la participación de otros Departamentos o Direcciones durante el desarrollo del propio proceso.

f. Esperientziari buruzko azken txosten bat egitea, bi hizkuntza ofizialetan (planteamendua, edukia, metodologia, parte-hartzaileak, egindako lana, emaitzak, ondorioak, egindako ikaskuntzak eta etorkizunari begira hobetzeko orientabideak eta proposamenak).

f. Elaborar un informe final, en ambas lenguas oficiales, que recoja la experiencia (planteamiento, contenido, metodología, participantes, trabajo realizado, resultados, conclusiones, aprendizajes realizados y orientaciones y propuestas de mejora de cara al futuro).

g. Txosten exekutibo erraz eta bisual bat diseinatzea eta egitea, dibulgaziozkoa, bi hizkuntza ofizialetan.

g. Diseñar y elaborar un informe ejecutivo sencillo y visual, de carácter más divulgativo, también en ambas lenguas oficiales.

h. Hala badagokio, dokumentazio laburra eta/edo aurkezpenak prestatzea,

h. Preparar, en su caso, documentación breve y/o presentaciones para que el Órgano para la

Berdintasunerako Organoak eta lankidetza-prozesuetan eta prozesu bateratuetan parte hartzen duten departamentuek lan-prozesuen berri eman ahal izan dezaten, bai Foru Aldundian bertan, bai kanpoan.

Igualdad y los Departamentos que participen en los procesos colaborativos y conjuntos puedan dar cuenta de los diferentes procesos de trabajo, tanto a nivel interno dentro de la Diputación Foral, como a nivel externo.

Azkenik, lan osoa egiteko moduari dagokionez, alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

Por último, y respecto a la forma de llevar a cabo la totalidad del trabajo, se deberán tener en cuenta los siguientes aspectos:

1. Kontuan hartzea *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana*, lantzen den edukia bat etor dadin haren helburu estrategiko eta operatiboekin.

1. Considerar el *IV Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres*, de manera que el contenido que se trabaje se alinee con sus objetivos estratégicos y operativos.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuetako berdintasun-unitateak prozesu osoan sar daitezen sustatzea, dagokien departamentuko parte-hartzaile gisa.

2. Promover la incorporación de las Unidades departamentales de Igualdad de la Diputación Foral de Gipuzkoa en todo el proceso, como participantes de su respectivo departamento.

3. Aurrekontu-zikloari lotutako prozesuen eta departamentuen arteko trukea eta lankidetza sustatzea, egindako lana hobetzeko, aberasteko eta zentzu kolektiboa emateko.

3. Promover el intercambio y la colaboración entre los procesos ligados al ciclo presupuestario y los departamentos forales, de cara a mejorar, enriquecer y dar sentido colectivo al trabajo realizado.

Donostia, 2026ko urtarrilaren XXa / San Sebastián, xx de enero de 2026

Berdintasuneko zerbitzuburua /
Jefa del Servicio de Igualdad

Berdintasunerako teknikaria /
Técnica para la Igualdad

Sin./Fdo.- Ana Agirre Saez de Eguilaz

Sin./Fdo.- Sandra Barrenetxea Díez

Nork sinatua: 2.5.4.5=#130f49444345532d343435353130343752,2.5.4.4=#0c1042415252454e4543484541204449455a,2.5.4.42=#0c0653414e445241,CN=SANDRA BARRENECHEA DIEZ - 44551047R,OU=CERTIFICADO ELECTRONICO DE EMPLEADO PUBLICO,OU=GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA,O=GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA,C=ES
Data: 2026/02/23 14:24:57